

4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Martxoak 29 Apirilak 3, 5, 24, 26 Maiatzak 3	IKASGELA/ TOKIA	IVAP A2 gela Errekalde zumarkalea, 18 Bilbo
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	09:00-11:30
MATRIKULA EPEA	Martxoaren 15era arte	ONIRITZI EPEA	Martxoaren 22ra arte
IKASLE KOPURUA	15	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 3. HE gaindituta izatea.
IRAKASLEA	Labayru	MATERIALA	Ikastaroan banatuko da
DISEINUA	Labayru		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	4.HE iritzi-artikulua sortzen trebatzea. Iritzi-artikulu horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.
HELBURU ZEHATZAK	Azterketaren aurkezpena egin. IVAPeko proben balorazio-irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna. Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak landu. Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin. Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin. Aberastasanaren gaineko argibide batzuk eman eta ariketak egin. Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarritzakoak diren akats larriak aipatu, aholkuak eman.
GAITASUNAK	Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da iritzi-artikulua sortu behar duenean, protokolo jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

PRESTAKUNTZA ARLOA:	ERABILERA PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITATEA:	AURREZ AURREKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Egindako lana konpartitu eta komentatuko da.

PROGRAMAZIOA

1. saioa:

C2 mailaren deskribapen orokorra egin.
4HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.
IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.
Etixerako: iritzi-artikulu bat idatzi, azken eskola-egunean zuzentzeko.

2. saioa:

Testuinguruaren garrantziaz aritu eta ariketak egin.
Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak.
Iritzi-artikuluaren zirriborroa nola egin azaldu eta ariketak egin.
Etixerako: gaia eman, eta horren gaineko iritzi-artikulua idazteko zirriborroa egin.

3. saioa:

Etxean egindako eskema partekatu, komentatu, hobetu, zuzendu... denon artean.
Gutuna: administrazioiko C2 mailako gutunen osagaiak eta ezaugarriak azaldu eta ariketen bidez landu: zirriborroa, agurrak, erregistroa, estilo-aholkuak...
Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.
Etixerako: gutuna idatzi.

4. saioa:

Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.
Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.
Etixerako: puntuazioari eta kohesioari lotutako teoria irakurri.

5. saioa:

C2 mailako testuak idazteko estilo-aholkuak landu ariketen bidez.
Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.
Aprobetxamendu-proba.
Etixerako: lehen eskola egunean egindako norbere iritzi-artikulua zuzendu.

6. saioa:

Aprobetxamendu-probaren zuzenketa eta hobetzeko proposamenak.
Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin erkatzeko.
Azken gomendioak eta birpasa ariketak.
Balorazioa.

4. HE: IDATZIZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ebaluaketa egiteko saioretan eskatuko diren ariketak eta azken moduluko testua neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

Bete beharreko baldintzak:

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

145 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.